




BARREN

TOKIKOM

Heroinaren garai beltza



Abenduak 2, ostirala

Jalgi hadi plazara!

Giza katea, 19:00etan, Kalegoen plazan

Plazera plazara jaialdia, 19:30ean, Maalako parkean

EUSKARAK
365
EGUN

Elgoibarko Euskarak 365 Egun taldea

 DANOBATGROUP

 elgoibar
ELGOIBARKO
UDALA

ERNE

“SD EIBAR” BIRUSA HEDATZEN ARI DA...



EIBARRERA ABONATU

Eta PRIMERAKO AFIZIO BAT kutsatu

Informatu zaitez: www.sdeibar.com/abonatuak edo 943 201 831



SDEIBAR

kutsatuzureafizioa



1936. urtean estatu kolpearen ondorioz errepresaliatuak izan ziren Urola Ferrokarrileko langileei omenaldia

Gipuzkoako Foru Aldundia, 36ko estatu kolpearen ondorioz 1936 eta 1937 bitartean errepresaliatuak izan ziren Zumarraga-Zumaia bitarteko Urola Ferrokarrileko langile ohien edo eta senitartekoen bila dabil 2016ko abenduaren 20an egingo zaien gorazarre ekitaldirako. Jarri mesedez harremanetan **943 112 290** telefono zenbakian.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA



NORA KORTABERRIA



“Ospatu behar dugu, 365 Euskararen Egun izateko lehen pausoa izan daitekeelako”

Kaixo, Nerea! Zer moduz? Abenduan sartu gara jada eta etxean sartuta egoteko gogoia ematen duen eguraldi iluna ere egiten hasi da; arratsaldea manta artean film bat ikusten gustura igarotzeko egunak dira. Sentsazio horiei ongi-erria ematen dien egun bat badut. Abenduaren 3a izaten da. Datak gogoratzen nahiko txarra naiz, egia esanda, baina hau da nire urtegunarekin batera, ahazten ez zaidan horietako bat: Euskararen Eguna.

24 ordu dira, baina ez Euskal Herrikoak soilik, mundu osoan zehar dauden herrialde bakoitzeko 24 ordu baizik. Euskaldunak non, Euskararen Nazioarteko Eguna han, eta hau poztekoa da benetan. Nolanahi ere, aurten zer pentsatu eman dit zerbait antolatzeko unibertsitatean izan den ikasle zein irakasleen interes gutxiak. Euskal Herriatik kanpo ospatu, eta Euskal Herriko txoko batzuetan “hileta” bat antolatu behar al dugu egun honentzat?

Baina tira, guztiak bezala, bere alde positibo edo negatibotik begiratu geniezaioke, eta baikorra izan nahi dut gaur. Euskararen

Egunaren 24 orduak aipatu ditudanean, honakoa pentsa zenezake: “Euskararen Eguna egunero da. Euskarak 365 egun ditu.” Maiz erabiltzen den topikoa da. Izan ere, egun batez euskaldunak direnak ere badira, eta ematen du *postureo* hutsagatik egiten dutela. Dena dela, eta berriz ere baikor jokatuz, aurrerapauso bat da. Egun bakarra den hori bi egun bihurtu daitezke nahigabe, eta ondoren hiru, eta lau, eta azkenean 365! Zergatik ez?

Euskararekiko maitasuna birus bat bezalakoa da, kontaktatu egiten da. Unibertsitatean ezagutu dudak gasteiztar batek euskara gorroto zuen, txikitatik eskolan “inposatu” ziotelako. Urtebete geroago, ulertzen du euskararekiko maitasuna izatea, maiteminduta gaudenok transmititu diogulako, eta agian, berak euskara maitatzea ere lortuko dugu, nork daki! Guzti honekin esan nahi dudana zera da: Euskararen Eguna abenduaren sarrera izateaz gain guztiok ospatu beharreko eguna dela, guztiona baita, eta 365 Euskararen Eguna izateko lehenengo pausoa izan daitekelako!



NEREA GURRUTXAGA



“Festarako eguna ez ezik, aldarrikapen politikorako eguna ere izan behar da”

Kaixo, Nora! Abenduan sartu gara, bai, ospakizunerako hila betea izan ohi den hilabetean. Nik, zuk bezala, leku berezi bat gorde ohi diot Euskararen Egunari. Esan duzun bezala, euskarak 365 egun izan behar ditu; guztiz ados nago horrekin. Izan ere, beste egun asko bezala (pasatu berri den azaroaren 25a, kasu), hipokresia handiko eguna izan ohi da, eta benetan euskaraz bizitzeko beharra sentitzen dugunontzat sentimendu gazi-gozoak sortzen dituena. Horregatik, festarako eguna ez ezik, aldarrikapen politikoetarako eguna ere izan behar dela uste dut. Guztiok dugu gure hizkuntza babesteko eta sustatzeko ardura, baina indar politikoei ordaindu egiten diegu hori horrela izan dadin, eta askotan lotsagarria izaten da haien euskarari ematen dioten garrantzi urria. Urrutira joan gabe, kanpaina euskararen kontrako mezua zuen bideo hura egin zutenak Gobernuan ditugu orain. Bestalde, noiz arte egon behar gara Euskal Herriko Unibertsitatea euskalduna izateko zain? Nik bukatu dut gradua, Nora, eta fakultatera joan nintzen azkena titulua eskatzera izan zen. Ba idazkaritzan zegoen pertsona ez zen kapaza izan bi hitz baino gehiago euskaraz egiteko, ezta ere egun berean bisitatu nuen fakultateko kanpoko

praktiken arduraduna. Horrela utzi nuen unibertsitatea, lau urte lehenago bezalaxe. Dena den, egun honetan aldarrikapenez gain festarako aukera ere eman behar genioke gure buruari. Egun batez, euskaldun askok lehen hitza euskaraz egiten dugunetan sentitzen dugun segurtasun falta edo aurrekoaren aurpegiko keinuaren bitartez ulertu duen ala ez asmatu beharrak sortzen duen estresaz desegin, eta batak besteari bizkarrean kolpetxo batzuk emanaz elkarri animoak eman, beste urte bat euskalduna izanaz bizirauteko indarrak hartzeko. Agian exageratu egin dut hor, barkaidazu, baina baikortasuna ez da inoiz nire bertute izan.

Elgoibarko Izarrak antolatutako *Gure imaginarioa kantagintzaren bitartez* ikastaroan Etxepareren letra irakurtzean esan ziguten bezala, nola da posible orain dela bostehun urteko testu batek honelako gaurkotasuna izatea? Noiz arte kantatu beharko dugu *jalgí adi plazara*? Nik ez daukat erantzuna, Nora, baina argi esango dizut behar den aldi guztietan irtengo naizela hori kantatzera, zuk esan bezala, euskararekiko daukadan maitasuna gutxienez beste pertsona bati transmititu diezaikedan bitartean.

ARANTZA ETXEBERRIA

Irakaslea



Txakurrak eta zaldia Durangorako

Garai haietan izan zen baita ere gure herrian drogaren sarrera: hatxisa, heroina, lsd, anfetamina,...

Handik urteetara Maalako Gazte-
txean egin nuen berriz ere topo Justore-
kin, eta orduan sendotu zen gure
arteko lagunartea eta lankidetzaz. Zer
esan zenbat eskaini zion gune libre
hari Justok, asko, ondo, zuzen; inork
ikusten ez zituen lanak hartzen zituen
bere gain, adibidez: egiten genituen
ekintzak xehetasunez jaso (kontzertu,
ikastaro, hitzaldi, tailer...). Gainontze-
kook, Gaztetxea bota ziguten arte ez
genuen izan bere koaderno haren
berri; berak, etxean idazten zituen bu-
ruriko ekintza guztiak, letra argiz.

*“Zerbait egin behar dela
ikusten badu,
Justok aurrera egingo du,
nekeza izan arren”*

Bere senak nonbait bazekien memoria
zeinen garrantzitsua den...

Euri asko egin du harrezkero, euri
asko eta bidean lagun asko galdu ditugu:
Hiesa, istripuak, haserreak, ezinikusiak,
denetik.

Duela pare bat urte, berarekin watsa-
pez ari nintzela, ea zertan ari zen galdetu
nion; erantzuna: “Txakurrak eta zaldiaren
arteko lotura ikertzen ari naiz”. Badakit
ordu asko sartu dituela Koldo Mitxelenako
hemerotekan, badakit ordu txikitan eta
egun argiz arituko zela lanean, ez daukat
dudarik, horrelakoa baita bera. Zerbait
egin behar dela ikusten badu, berak au-
rrera egingo du, nekeza izan arren.

Eta drogak eragindako biktimei ere
“egia, justizia eta erreparazioa” dagokie,
nola ez.

Hara non ikerketa lana bukatzen ari
den, eta Durangoko azokarako izango
dugun esku artean Txalaparta argitaletxe-
ari esker.

Irakurtzeko irrikitan, beraz.

Maiz suertatzen da pertsona
batek duen izena eta bere
izakera edo nortasunak bat
egiten dutela.

Badut horrelako lagun bat: Justo.
Gazte garaian Institutuan ezagutu ge-
nuen elkar, bertako batzar, ordu libre eta
atseden orduetan.

Garai haietan (80. hamarkada),
izan zen gure herrian zertaz borrokatu,
zertaz kezkatu, zer aldarrikatu; mugim-
endu soziala zer zen ezagutu ge-
nuen: herri biltzarrak, manifestaldi
jendetsuak, greba orokorrak, ikasle ba-
tzarrak, eztabaidak, liskarrak, alderdi-
keriak...



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
EuskoLur Erakundearen Erakundeak

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragar-
kiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain
hartzen Iritzia, Zofoak Beleari eta eskutitzak atalean adiera-
zitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalaa Anaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN**
ARDURADUNA Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizaba-
laga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora
Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Iureta, Nora Kortaberria, Nerea
Gurruxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma
Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Ithurbe, Eire Vila,
Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ain-
hoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julien An-
sola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras,
Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola,
Ander Mujika, Ander Sorraluze, Arantza Etxeberria. **INPRIMA-
TEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-
1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► HERRIA HUTSIK MUGIKORTASUN ASTEAN

Mugikortasun Astearen barruan herriko kaleak oinezkoentzako berreskuratu zituzten azaroaren 21etik 26ra bitartean, eta horrek kalte handiak eragin dizkigu Merkatu Plazako dendariei. Herritar gehienak autoz etortzen dira Merkatu Plazara erosketak egitera, eta aste horretan ezin izan ziren etorri. Ez zieten autoa hona gerturatzeko uzten, eta askoz jende gutxiago ibili zela igarri genuen. Gure banatzaileak ere zailtasunak izan zituzten produktuak deskargatzeko. Patata hornitzailea, esate baterako, pisu handiko patata zakuak karroan hartuta ibili zen atzera eta aurrera. Ez dugu ulertzen zergatik eta zertarako egiten diren honelako ekimenak. Herriko erdigunea hilda egon da Mugikortasun Astea, eta guk behintzat zuzen-zuzenean jasan dugu horren kaltea, salmentak izugarri jaitsi ziren-eta. Nahikoa zaila daukagu lehen ere dendari txikiek aurrera egiteko!

Merkatu Plazako saltzaileak

► ESKERRIK ASKO, JUAN MARI!

Aspaldi etorri ziran estraiñekoz gurekin; 1996-xan izan zan, kontuak oker etara ez badiittugu. Harrezkero, urtero urtero azaldu zera Elgoibarrera otsailaren 4an. Santa Ageda bezperia egun berezixa da guretzat, eta badakigu zuretzat ere hala izan dala.

Pozik azaldu zera beti gure artera. Umoretsu eta berbetarako goguakin. Baiña, batez ere, usadio zaharrari eutsi eta koplak kantatzera etortzen ziran; Elgoibarko basarritarrei zure onena eskaintzera.

Germanekin batera batzuetan, eta Ziardari laguntzen hurrenguan. Urruzunoko edo Sallobenteko baserri-azukoko etxietan urte batian, eta Aiastiakuak edo

ldotorbekuak hurrenguan. Elgoibarkua izan ez arren, etxe gehixenetan zentituan ezagunak eta lagunak. Zu bezelakuak behar dittugu herri arteko mugak hausteko.

Lanian hasittakuan serixo jartzen ziran; ganora eske ere bai, behin baiño gehixagotan, ahalik eta basarri gehixen koplatu behar genittuala esanez. Eta egunaren amaieran, Aiastiako afalostia ere motza begittantzen jatzun; nahi baiño lehenago altxatzen zenduan ipurdixa aulkitik. Zer ete da lagunartian eta bertotan hainbeste gozatia! Bai, badakigu zer dan: bizipoza. Bertso munduak ematen zizun bizipoza.

Ez zera berriz Elgoibarko plazara azalduko, baiña otsailaren 4an zurekin akordauko gera. Faltan botako zaittugu plazan, furgonetan, basarri-atarixetan edo Aiastiako afalostian. Faltan botako dittugu zure koplak, bai guk eta baita baserritarrek ere, eta afaldu ondoren, etxerako bidia hartu aurretik, izarretara begiratu eta "eskerrik asko, Juan Mari!" esango dizugu.

Elgoibarko Izarrako Santa Ageda taldia

► MEMORIAREN GANBARAN GORDEKO DUGU

Badakit aurrez aurre zorion-mezu asko eta asko jaso duzuela, baina BARRENEK eskaintzen didan plaza honetatik, *Memoriaren ganbaratik* ekimenari tiraka jardun duzuenok zoriondu eta txalotu nahi zaituztet. Itzela izan da sortu eta lortu duzuen. Entzun dizuet behin baino gehiagotan ideia txiki baten bultzatan hasi zela dena, baina handia, oso handia, izan da azkenerako ikusi eta bizitakoa. Ez naiz ekimen horrekin lortu duzuen guztia zerrendatzen hasiko, baina, batez ere, herrigintza sentitu dut nik. Elgoibar herriagoa da horrelako ekimenei esker. Eta gu elgoibartarra-

goak. Herritarren parte-hartzea, oroi-mena, sentimenduak, emozioa, plaza, euskara ... balio asko, ekimen bakarraren atzean.

Zorionak, beraz, egin eta lortu duzuenarengatik, eta eskerrik asko, niri eta ni bezalako beste hainbeste herritarri ekimen horretan parte hartzeko aukera emateagatik. Oso gustura eta eroso sentitu naiz zuokin batzarretan, entseguetan, errekreazio egunean, edota Herriko Antzokian dokumentala ikusi genuenean. Gure memoriaren ganbaran gordeko dugu.

Imanol Larrañaga Juaristi

► SEBAS ETXANIZ ETXERA

Azaroaren 24an izandako Udalbatzuan ahobatez onartu zen Sebas Etxaniz preso elgoibartarra askatzeko SAREk ia 500 elgoibartarren babesarekin egindako eskaera. Eskerrak eman nahi dizkiogu Udalbatzari eta eskaera sinatu zuten 500 elgoibartarrei. Pauso garrantzitsua izan da, baina Sebas etxera ekarri arte lanean jarraitu behar dugu. Asko kostatuko da oraindik Gobernu mugitzea, eta beste pauso batzuk ematen segitu beharko dugu. Abenduaren 15ean hitzaldia izango da Kultur Etxeko so-toan. Bertan Sebasen abokatua den Onintza Ostolazak hitz egingo du, eta Sebasen zein 70 urte beteak dituztenen egoera legala zein den azalduko digu. Hitzaldi hau Gabon bueltan antolatu nahi dugun ekimenetako bat izango da. Baina gehiago ere antolatu nahi ditugu. Horretarako, abenduaren 5ean hitzordua jarri dugu Kimetz Elkartean, arratsaldeko zazpiretan. Animatu eta parte hartu!

Elgoibarko SARE

EuskoSkills olinpiadetako zenbait proba Mekan eta IMHn jokatuko dituzte

Lanbide Heziketako EuskoSkills 2016 olinpiadak jokatzeko dihardute asteon Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko hainbat ikastetxetan, eta horietako zenbait proba Elgoibarko Meka eta IMH ikastetxeetan jokatuko dituzte gaur.

Meka Lanbide Eskolak "Kolpeleungo konpontze lanak", "Autoko teknologia", "Autoko margotze lanak", eta galdaragintza arloekin lotutako probak antolatuko ditu, eta, Aretxabaleta Lanbide Eskolako (Aretxabaleta), San Viatorreko (Sopuerta), Egibideko (Gasteiz) On Boscoko (Oreretza) eta Elgoibarko Meka Lanbide Eskolako (Elgoibar) 21 ikasle lehiatuko dira proba horietan. Probak antolatu ahal izateko inguruko zenbait enpresen laguntza izan dute Mekako arduradunek eta eskerrak eman dizkiete Besa, Bernardo Ecenarro S.A, Würth, Praxiar, Gurdi Koop., Soldegui S.L eta Caravant enpresei.



IMHk, berriz, CNC tornu proba antolatuko du Euskoskills barruan, eta hiru ikaslek hartuko dute parte proba horretan: Getariko Jon Peña Aranguren, Zumaiko Ion Iriondo eta Azpeitiako Eneko Barkin Agirre. IMHko irakasle Igor Larrañagarekin prestatu dira probarako.

Bestalde, EuroSkills 2016 proba jokatuko da abenduaren 1etik 3ra bitartean Goteborg (Suedia) hirian, eta IMHko bi ikasle ohik hartuko dute parte, lehiakide bezala batak eta tutore moduan besteak. Jon Papeira eta Iñaki Hernandez dira, azpeitiarrak biak. Esperientzia handia dute bietan honetako lehiaketetan. Urrezko dominak eskuratu zituzten SpainSkills probetan, eta Lapeirak WorldSkills proban ere hartu zuen parte iaz.

Hilabeteko lehen eguaztenetan bilduko da Maitasunez Hazi edoskitze taldea

Maitasunez Hazi edoskitze eta hazkuntza taldeak datorren eguaztenean, hilaren 7an, egingo du hurrengo bilkura, 18:00etan Elgoibarko kultur etxean. Aurrerantzean hileko lehen eguaztenean batuko dira. Edoskitzeari eta umea hazteari buruzko bizipenak partekatzeko taldea da.

32 emakumek hartu zuten parte autodefentsa tailerrear

Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunaren harira, emakumeentzako autodefentsa ikastaroa egin zuten zapatuan Olaizaga kiroldegian, eta 32 lagunek hartu zuten parte. Olaizaga Kirol Taldeak eta Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak antolatu zuten ikastaroa, eta honelako prestakuntzak ematen aditua den Luis Agirregomezkorta elgoibartarrak zuzendu zuen saioa. Besteak beste, arrisku egoerei erantzuteko eta seguruago sentitzeko teknikak irakatsi zituen.



Kubara joatea debekatu diote Arnaldo Otegi

Fidel Castroren aldeko ekitaldietara joatekoa zen Arnaldo Otegi Sortuko idazkari nagusia, baina Miarrizteko aireportuan ez zioten hegazkinera igotzen utzi, debekatu duelako Ameriketako Estatu Batuetako aire eremuan sartzea. Astelehenean bideo bat argitaratu zuen Otegi eta han esandakoaren arabera, "zailtasun guztien gainetik" lortu zuen bere pasaporte berria, eta Kubara joatekoa zen. Bideo horretan, Otegi adierazi zuen Castro "erreferente etiko eta politiko bat" izan dela eta izango dela ezker independentistarentzat; horregatik, beharrezkotzat jotzen zuen Habanara joatea. Joan zen barixakuan hil zen Fidel Castro, 90 urte zituela.



Euskarazko produktuen katalogoak banatu ditu Udalak Elgoibarko ikastetxeetan

Elgoibarko Udalaren Euskara Sailak Euskarazko Produktuen katalogoaren edizio berria banatu du Ikastolako eta Herri Eskolako ikasleen artean, modu horretan, gurasoengana ere iritsi dadin. Urte garai honetan euskarazko liburuak, jolasak, musika edota bideoak erosi eta oparitzeko aukera paregabea izaten dela kontuan hartuz, gurasoentzat eta 16 urte bitarteko haur eta gazteentzat ehunka erreferentzia biltzen ditu katalogoaren aurtengo edizioak: musika, DVD filmak, informatika, aldizkariak, liburuak, jostailu eta jokoak, gurasoentzako produktuak... Gainera, produktu bakoitzaren gutxi gorabeherako prezioa ematen da, eta zenbait ataletan adinaren araberrako banaketa ere egiten da. Katalogo berria paperean eta Interneten dago eskuragai, haur eta gazteentzako ehunka produktuekin. Katalogoa sarean kontsultatzeko bi aukera daude: www.katalogoa.eus webgunean edota Elgoibarko Udalaren www.elgoibar.eus webgunean, hain zuzen, Euskara Sailaren atalean. Urtero bezala, kanpaina honen bidez, hizkuntzaren transmisioan eragin nahi da, gurasoei euren seme-alabentzat lagungarri izango diren euskarazko produktuen berri emanaz. Katalogoa etxean jaso ez duenak herriko liburudendetan, Kultur Etxean edota Gotzon Garate Udal Liburutegian jaso dezake.

Indarkeria matxista salatzeke ekintzak egin dituzte Elgoibarren eta Mendaron

Joan zen barixakuan, azaroak 25, Indarkeria Matxistaren Kontrako nazioarteko eguna izan zen, eta horren harira, hainbat ekitaldi egin zituzten han eta hemen. Elgoibarren eta Mendaron ere egin zituzten indarkeria matxista salatzeke ekitaldiak. Elgoibarko Emakumeen Kontseiluak deituta, elkarretaratzea egin zuten Kalegoen plazan, eta Mendaron, aldiz, Women in black ekimena antolatu zuen Tratu Onen Taldeak. 2016. urtean Estatuan bikotekideek hil dituzten emakumeak ikustarazteko, eta indarkeria matxista salatzeke kale ikuskizuna izan zen. 60 emakume inguruk hartu zuten parte performancean.



“Orduko nire lagunetatik oso gutxi daude bizirik”

▶ JUSTO ARRIOLA IDAZLEA

Espainiako Estatuak heroina armatzat erabili ez zuela zioen artikulu batek sortutako eztabaida digitalean parte hartzen ari zen Justo Arriola (Elgoibar, 1966), gai horri buruzko liburu bat idazteko beharra sentitu zuenean. Berak kontrakoa defendatzen zuen: Euskal Herrian heroina zabaltzeko interes politikoa egon zela 80ko hamarkadan. Bere ustez, indar polizialen eta heroinaren arteko loturaren ebidentziak batuko zituen liburu bat falta zen. Juan Carlos Usó zen eztabaidako artikuloaren idazlea. Harekin harremanetan jarri zen Justo Arriola, eta hark ere animatu zuen liburua idaztera. Ia bi urteko lanaren ostean, ‘A los pies del caballo’ liburua argitaratu du elgoibartarrak, Txalaparta argitaletxearekin. Dokumentazio lan mardula egin du: Garai hartako aldizkari, egunkari eta liburu pila bat irakurri ditu, eta Euskal Herriko eta Elgoibarko errealitatea jaso du liburuan. Testigantza errealak ere bildu ditu, eta bere azalean bizi izandakoa ere jaso du. Durangoko Azokarako aurkeztuko du liburua.

- AINHOA ANDONEGI -

♦ ‘A los pies del caballo’. Zer jaso duzu liburuan?

Dokumentazio lan handia izan da: aldizkari, egunkari eta gai hari buruz idatzitako liburu pila bat irakurri ditut, eta elkarrizketa batzuk egin ere bai. Testigantza dexente dago lanean, aurrez idatzitakoak edo nik eginak. Ikasketa unibertsitariorik ez dudanez, era naturalean irteten zitzaidan bezala egin dut lan. Errepaso historikoa egiten dut paralelismoa gordetzen duten aurrekariak jasotzea garrantzizkoa delako. Adibidez: alkohola herri indigenen aurka, opioaren gerrak, CIAren estrategia geopolitikoaren emaitzak, Pantera Beltzen kontrako programak, Italiako langile autonomiaren kontrako operazioak... Estatu espainia-



rrean Katalunia, Euskal Herria eta espetxeetako kasuak ere aztertu ditut.

♦ 80. hamarkadan kokatu duzu liburua. Non zinen zu garai hartan?

Hemengo kasuan, 80ko hamarkadan kokatzen da gehien bat, baina 70eko eta 90eko hamarkadak ere landu ditut. Heroinaren boom-ean Institutuan ikasten ari nintzen, eta ikasleen grebak, borroka politikoa, droga legezkoak eta legez kanpo-

koak, rock-a eta abar ezagutzen hasia nintzen. 16-17 urte nituen. Nire bizitzako pasarte txikiren bat ere agertzen da liburuan. Elgoibarko kapituluan, gatazka politiko eta sozialaren erretratua egiten dut, nik ikusi eta bizi izan nuen moduan.

♦ Hamarkada beltza izan zen 80koa Espainia osoan, baina bereziki Euskal Herrian. Zergatik izan zuen heroinak eragin handiagoa Euskal Herrian?

Estatuan bezala hemen ere bazegoen gazte sektore handi baten esperimentatzeko grina, giro kontrakultural eta errebeldea, arauak hausteko nahia, debekatutakoarekiko lilura... Bestetik, kutsatze sozial horren alde egin zuen zaldia- ren trafikoaren erabateko permisibitate poliziala ere bazegoen. Interes politikoa zuten hori gerta zedin. Heroinaren munduan sartu ziren gazte gehienek gauzak aldatzeko borroka baztertu zuten, eta hori zen hain justu agintariak nahi zutena.

♦ **Eta, Elgoibarren zer gertatu zen? Kalterik handienetarikoak jasan zituen herria izan zen. Belaunaldi oso bat falta dela esaten da.**

Osakidetzako agintariak ere ez dakite zergatik hartu zuen Elgoibarrek halako protagonismo latza, hasieran Bermeorekin batera: kasualitatez, birusa hona lehenago ailegatu zelako... Ez dakite. Orduan zabaldua zegoen Elgoibarren material ona saltzen zela eta kanpoko gazte asko etortzen ziren hona droga erostera. Belaunaldi osoa agian ez da faltako, baina parte handi bat bai. Orduko nire lagunetatik -Elgoibarkoak eta inguruko herrietakoak- oso gutxi daude bizirik. Azkar esaten da, baina Elgoibarren 80tik gora gazte hil ziren. Zorionez, batzuk hemen gaude oraindik.

♦ **Nola iritsi zen heroina hona?**

Sarrera ezberdinak egon ziren. Hasieran kontsumitzaileak joaten ziren bila Donostiako alde zaharrera edo auzoetara, Ondarrura... 80ko hamarkadan Otxarko- agara iristen zen droga gehiena. Ostalari- ren batek ere jarri zuen dirua *mandemeen* bidez atzeritik droga ekar- tzeko. Arrasateko Udaltzaingoaren ikerke- tako iturri baten arabera, La Salve eta Intxaurrendoko goardia zibilak zaldia ba- natzen ibili ziren auto kamuflatuetan Arra- saten, Durangon, Elgoibarren... Beste lekuko batzuen arabera, Iruñean, Deban, Donostian... ere ikusi zituzten droga ba- natzen. Eta Navajas fiskalaren txostenak indar polizialen eta trafikatzailer, proxe- neta eta tabako kontrabandisten sarean arteko lotura estua salatu zuen. Trafika- tzaile-salatariek trafikatzeko baimena

zuten, eta hori argi erakusten dute heroina- atzimateen datu ofizialek: 70eko eta 80ko hamarkadetan harrapatutako droga kopurua barregarria da. Gerra zikinerako ere erabili zuten, adibidez, Santi Brouar- den hiltzaileei ordaintzeko.

♦ **Berpizten eta indarra hartzen ari zen gazte mugimendua apaltzeko heroina erabili zutela esaten da.**

Tesi horrekin bat egiten dut nik. Pentsa, hamar milatik gora gazte engantxatu ziren, eta oro har, errebeldeak, sistemari uko egiten zietenak izan ziren. Izurritearen hedapenean aritu ziren Estatuaren aparatuak.

“Gerra zikinerako ere erabili zuten droga, adibidez Santi Brouarden hiltzaileei ordaintzeko”

♦ **Langabezia tasa handia zen eta gazteek lanerako aukera gutxi zuten. Horrek ere eragin zuela uste duzu?**

Noski, krisi ekonomikoaren eta indus- tria-birmoldaketaren garaia izan zen tran- zizioa. Milaka eta milaka langile bota zituzten kalera, eta Europako gazte-langa- beziaren tasa handienetakoa hemen ze- goen. Horrek sufrimendu eta frustrazio itzela sortu zuen eta, baita ere, ordu libre pila bat gazte horien bizitzan. Penak kentzeko erreminta ugariren beharra izan zuten.

♦ **Garai hartan musika talde asko sortu ziren euskal rock erradikalaren eta punkaren alorrean. Mugimendu horiek nola eragin zuten?**

Hedonismo korrante bat zeharkatu zuen 80ko hamarkada aztoratua izan zen. Mugimendu horietan genbiltzan gehienok zeozer kontsumitzen genuen: al- kohola, porroak, zaldia... Badakizu, *bizi azkar eta laga gorpu eder bat...* tonto- keria hura. Baina ez dut uste era proble-

matikoan hartzen genuenik gehienok. Punk musikari heroinazale dexente hil ba- dira ere, punkarekin lotu zen droga nagu- sia speed-a izan zen, anfetamina.

♦ **Nola hedatu zen heroinaren kontsumoa hainbeste eta hain azkar?**

Hasieran behintzat jendeak gauza gutxi zekien heroinari buruz. Askorentzat lehenengo *monoa*, abstinentzia-sindro- mea delakoa ustekabeko kolpea izan ziren. Ez genekien ia ezer ere drogei buruz. Ez zegoen oraingo informaziorik. Zeharkako informazioa geneukan, musi- karen bidez iristen zitzaiguna, Lou Reed eta enparauen abestien bidez. Ofizialki, droga guztiak ziren berdin xamarrak: txar- rarak eta arriskutsuak, baina kalean ez ge- nuen horrela ikusten.

♦ **Heroinak eragindako adikzioa han- dia zen. Noraino iritsi zitekeen gazte bat heroina txute bat lortzeko?**

Denetik egon zen. Lana zutenek edo engantxe maila kontrolatzen jakin zutenek, nahiko ondo eraman zuten adikzioa. Beste batzuk trapitxero sartu ziren, eta he- roina edo speeda saltzen hasi ziren dirua lortzeko. Beste batzuk lapurretak egin zi- tuzten. Gutxi batzuk kartzelara ere joan ziren bankuak atrakatzegatik. Beste ba- tzuk desintoxikazio zentroetara joan ziren kartzela saihestearren. Familia batzuek in- fernua bizi izan zuten: batetik, baliozko gauzak desagertzen zitzaizkielako etxean, baina bereziki, beraien seme- alaba, anai-arreba... autosuntsiketa pro- zesu batean ikusten zutelako.

♦ **ETA narkotrafikoaren kontra jarri zen, eta Elgoibarren ere izan ziren atenta- tuak. Nola bizi izan zuen hura herriak?**

1980an zabaldu zuen ETak droga eta, batez ere, heroinaren kontrako fron- tea, Estatuko estrategia errepresiboaren partetzat jotzen zuelako. Oso momentu gogorrak eta tentsio handikoak izan ziren. Herriak konmozio bat izan zuen gertaera haiekin. Pitzadura bat sortu zuen jendea- ren artean.

♦ **Garai hartan ohikoa zen xiringak ka- lean botata ikustea, eta umeak ere xi- ringa artean jolasten zuten askotan. Nola kudeatzen zen hura guztia?**

Agian honek guztiak gaina hartzen zien herriko agintariei, baina errepresioak ez zuten ezertxo ere konpondu. Gogoratzen dut nola gimnasio zahar bat atxilotze gune bihurtu zuten, eta zelan ibili ziren udaltzainak eta ertzainak gazteak jazarzen.

♦ **Heroinaren eraginak ezagutzen hasi zirenean neurriak hartzen hasi ziren. Besteak beste, botiketan ez zizkieten gazteei xiringak saltzen. Ez zen erabaki zuzena izan.**

Ez dago dudarik! Udalaren erabaki horrek okertu egin zuen egoera. Gaixotasunak konpartitzen zituzten gazteak eta horren ondorio latzak handik gutxira ikusi ziren. Arriskuak gutxitzeko politikak beranduegi hartu ziren; osasun hondamendia gertatu zen ordurako.

♦ **Hiesa etorri zen ondoren, eta jendea hiltzen hasi zen. Orduan hasi ziren heroina heriotzarekin lotzen?**

Urte batzuetan etengabeko tanta-jarioa ezagutu genuen. Laurogeitik gora gazte hil ziren Elgoibarren *bixxoagatik*. Baina hiesa zabaldu aurretik ere, dozenaka gazte hil ziren Euskal Herrian. Heriotza eta heroina loturik daude hasiera-hasieratik. Ia astero hiltzen zen gazteren bat gaindosiak edo faltsututako droga hartzeagatik. Elgoibarko taberna batzuetako komunetatik ere ateratu zituzten hainbat gazte konortea galduta, baina zorionez, bizirik. 90eko hamarkadako bukaeran bi gazte hil ziren gaindosiagatik. Baina hau, droga batzuen debekurekin lotuta dago, debeku egoerak sortzen dituen baldintzetan ematen den kontsumoarekin, hain zuzen.

♦ **Lagunen heriotzak gertutik bizi izan zenituzten gazte askok. Nola gogoratzen duzu?**

Oso gogorra izan zen lagunak bizitasun guztia galtzen eta itzaltzen ikustea. Orduan, GIBa diagnostikatzeak hilabete gutxiren buruan gauzatzen zen heriotza zigorra esan nahi zuen. Kutsatutako gazte horiek baztertzeko hasi zen jendea, eta bazterketak ez zuten ezer hobetu; guztiz kontrakoa. Beldurrak eta aurreritziak hartu zuten prebentzioaren, informazioaren eta

heziketaren lekua. Hasieran gizarteak salbu ikusten zuen bere burua –gizaseme “normalena”–, uste zutelako GIBak soilik yonkiei, marikoiei eta putei (hitz hauek zuten gutxiespen zentzuarekin) erasaten ziela. Jokaera okerraren ondorioztat jotzen zen. Bazterketa eta errefusa izugarriak izan ziren maila guztietan.

♦ **Noiz hasi zen gizartea GIB birusa zutenak gaixotzat hartzen, baztertu beharrean?**

90eko hamarkadaren bukaeran-edo izango zen. Lehenago behintzat tratamenduak ematen hasi ziren, oso gogorrak, baina gizartea ez zegoen GIB birusa zutenekin bizitzeko prestaturik. Hiesa eta heriotza bereiztu direnean asko desdramatizatu da gaia. Hala ere, estigmatik oraindik hor dirau.

“Arriskuak gutxitzeko politikak beranduegi iritsi ziren; osasun hondamendia gertatu zen ordurako”

♦ **Nolakoa zen bizikidetzaren gaixorik?**

Denetik egon zen: etxean edo lanean kutsatzeko beldurrekin baztertu egin zituzten asko, medikuarenean ere gaizki tratatzen zituzten, gaixo horiek ukitzeko eta musukatzeko beldurra zegoen... Txutxumutxu ugari entzuten ziren kalean. Ez dakit; gai hau isilean gordetzea zen ohikoena.

♦ **Drogomenpekotasuna zutenei laguntzeko elkarteak sortu ziren. Elgoibarren, Errotatxo. Zein funtzio bete zuten?**

1983an Drogak Eragindakoen Erakundea (DEE) sortu zuten Euskal Herrian. Hamarkada bukaeran DEE horretatik Errotatxo sortu zen. Hasieran heroinazaleen familiakoak batzen ziren berba eta negar egiteko, elkarri laguntza emateko eta desintoxikazio lekuak topatzeko. Gero pre-

bentzio eta kontzientziazio kanpainak, irakasleentzako ikastaroak eta hitzaldiak antolatu edota gazteentzako baliabideak topatzeko moduak landu zituzten. Narkotrafikoaren inplikazioa salatu eta instituzioak mugiarazten ere saiatu ziren.

♦ **Nola bizi da gaur egun GIB birusa duen pertsona bat?**

Zeharkako ondorioz baduten arren, erretro birusaren kontrako tratamendu berri eta sinpleagoekin bizi kalitatea ona da. Bizitza normala egin daiteke. Bizi-itxaropena luzatzeko, garrantzia handia du tratamendua zorrotz betetzeak.

♦ **Desagertu al da heroina gaurko gazteen artean?**

Diotenez, herri batzuetan bueltatzen ari da. Xiringarekin zainetan ziztatu beharrean, gehienek erreta hartzen dute *txinoa* delakoa, baina berdin-berdin sortzen du adikzioa edo menpekotasuna.

♦ **Gaur egungo droga berrien ondorioak ere ez dira ezagutzen. Nola aurreikusi behar dugu etorkizuna?**

Ez dut kristalezko bolarik. Drogak hor egon dira, daude eta segituko dute. Drogen inguruko informazioa eta heziketa beharrezkoa da. Debeku politikak substantzien kontrola eragozten du, eta ez dakizu zer demontre sartzen duzun zure gorputzean. Gainera, droga denak ez dira denontzako, ezta une guztietarako ere. Arriskuak murriztu behar dira. Kontuz ibili behar da zer eta nola hartzen dugun. Santa Agedan lanean diharduen lagun batek esan dii gazte asko sartu dela han eta droga kontsumoak zerikusia duela.

♦ **Liburuak polemika sortuko duela esan duzu. Zerbait gehitu nahiko zenuke?**

Heroinaren fenomeno osoa ez badut esplikatzen ere, kontakizunaren zati bat den gertakari ilun hau, hau da, gazte disidente eta mugimendu iraultzaileen aurkako heroinaren erabilera politikoa ateratu nahi izan dut liburuan. Bestetik, heroinagatik edo hiesak jota senide maiteak galdu dituztenei eta atentatuetan hildakoen senideei ere, barkamena eskatu nahi diet ondorena sortu badiet. Baina espero dut ulertzea hori guztia gabe liburuaren hanturak geratzen zela.

Barazkiak, ganaduak, dantza, musika, herri-kirolak eta gehiago

Kontzezio azoka eguna da bihar Mendaron, baserriko jenero onenak dastatu eta erosteko egun aproposa. 9:30ean zabalduko dute azoka, baina azokaren bueltan egun osoko egitaraua antolatu du Udalak, ohi legez. Sagardo lehiaketa eta Mendaroko trikiti eskolako dantzari gaztetxoek saioa izango dira goizeko ekitaldi nagusiak. Sagardo lehiaketako sari banaketarekin amaituko dira goizeko kontuak, baina aurretik Pasai Donibaneko zanpantzarrak kalejiran irtengo dira.

Koadrilan bazkaltzeko eguna izan ohi dute biharkoa mendaroar askok eta egitarauan ere eten bat egongo da 16:00ak arte. Arratsaldean, eskolarteko pilota txapelketak jokatuko dira, eta herri-kirol desafioa jokatuko dute Herriko Enparantzan Tope Natxiok taldeko mutilek eta neskek elkarren kontra. 900 kiloko harriari tiraka arituko dira mutilak, eta 500 kilokoari tiraka neskek, nork plaza gehiago egingo. Ondoren, Mendaro ikastolako Arno Guraso Elkarte-koek saheski erreka salduko dute plazan, eta Eibarko Ustekabe fanfarreak girotuko du iluntzea.

ABENDUAK 3, ZAPATUA

9:30 Barazki eta ganadu azokaren hasiera.

11:00 VI. Sagardo lehiaketa.

12:00 Mendaroko Trikitixa dantza taldearen kalejira.

12:30 Izetako idiek gidatutako gurdian ibiltzeko aukera.

13:00 Pasai Donibaneko zanpantzarren kalejira.

Ondoren, sari banaketa.

*Goiz osoan zehar, minbiziaren kontrako elkarte-ko boluntarioak ibiliko dira herrian diru bilketa kanpainan.

16:00 Eskolarteko pilota txapelketa.

18:30 Mutil eta nesken arteko gizapropa desafioa, Herriko Enparantzan.

Ondoren, saheski erreka dastatzeko aukera Ustekabe fanfarreak alaituta.

23:30 'Guri 5' erromeria taldea (Gaztetxean Gazte Asanbladak antolatuta)

Gaztelekuko egitaraua zapatarako

14:30 Gaztelekukoko erabiltzaileen bazkaria Gaztetxean

16:30 Mendaroko Jo ta Ito talde gaztearen kontzertua Gaztetxean.

ABENDUAK 4, IGANDEA

Angel Bazterretxea abadeari eskerrak emateko ekitaldia antolatu du herritar talde batek domekarako, hirlaren 4rako. Joan zen azaroaren 6an hartu zuen erretiroa Bazterretxeak, 54 urtez Mendaroko abade izan ostean, eta urte hauetan guztietan herriaren alde egin duen lana eskertu nahi diote ekimenaren sustatzaileek. 13:00etan argazkia atera eta bideo bat grabatuko dute Herriko Enparantzan, eta parte hartzera deitu dute. 12:30erako plaza inguratzen hasteko eskatu dute.



KONTZEZIO EGYNEKO AZOKA

ABENDUAK 3











Maribel Bastida BASERRITARRA

Atxuri baserrikoak izango dira bihar Kontzezio azokan postua jarriko duten mendaroar bakarrak. Urteak dira etxeko jenero onena hartu eta azokara jaisten direla eta aurtengorako ere ilusio handiz daudela aitortu du Maribel Bastidak.



“7 urteko umea ere gauak kontatzen dabil amamarekin azokara joateko”

◆ Zer eramango duzue azokara?

Baserriko ogia, etxean egindako patxarana, iragasagarra eta mermelada, porruak eta baratzean sasoi honetan dauden halako batzuk, hemen auzoko baserri bateko baba-gorria eta Mintxeta baserriko ardi-esnea. Horretxek, eta intxaur batzuk. Gurean kantitate handitan ez dugu batzen intxaurra, baina hiru-lau kilo eramango ditugu.

◆ Ez da lehenengo aldia parte hartzen duzuela. Zenbat urte daramatzazue Mendaron postua jartzen?

Gu urtero joaten gara Kontzezio azokara aspaldiko urteetan. Lehenengo urteetan behorrak eramaten genituen, eta gero hasi ginen etxeko jateko kontuekin. 10-12 bat urte izango dira postua jartzen dugula. Gauza gutxi eramaten ditugu, baina gero eta ilusio handiagoarekin joaten gara, hori bai.

◆ Plaza ona da salmentarako?

Guk asko saltzen dugu. Herriko bakarrak geu izaten gara, eta jendeak ezagunak gaituenez, asko etortzen zaizkigu.

◆ Beste azokaren batera joaten zarete?

Ezta inora ere! Mendarora bakarrik gu. Herriko azoka delako joaten gara. Gure baserria Garagartza auzoan dago berez, baina Azkaratetik gora egin eta Madarixan aurrera joanda. Az-

AZOKAN EGONGO DIRENAK

FRONTOIAN

- Andikonagoitia baserria (Berriz): barazkiak
- Agarre baserria (Mallabia): barazkiak
- Ezozi baserria (Soraluze): barazkiak
- Antia baserria (Mutriku): barazkiak
- Atxuri baserria (Mendaro): ortuko jeneroa, goxo gauzak, ardi-esnea...
- Markos Urdangarin (Segura)
- Labegur (Berriatua)
- Mendaroko Txokolateak (Mendaro)
- Goienetxe (Mutriku)
- Itxoste (Soraluze)
- Julian Villena (Elgoibar)
- Manuel Odriozola (Zestua)

Ganadua

- Sahatzu baserria: limusina behiak
- Sarube baserria: ardiak
- Ibiri baserria: betizuak, poniak, astoak eta behorra
- Garate baserria: pirenaika arrazako behiak
- Goikola: ahuntzak
- Asier Rubio: moxalak eta txerriak

FRONTOI ATZEAN

- Vanessa Mateo: pitxiak
- Pott keramika: zeramika
- Aitziber: bisuteria
- Marta San Miguel: panpintxontxongilo
- Nagore: ahuntz gazta
- Jose Miguel Garcia: baratzuriak
- Onintza: gozogintza
- Rosa Maria Esteban: lora eta belarrak
- Luis Torres: euskal irudiak

koititik gertuago, beraz, Mendarotik baino. Gure umeak-eta Azkoitira joaten dira ikastolara ere, hango autobusa etortzen delako Azkaratera, baina gu mendarorak gara. Adin batetik aurrerakoak denak ezagutzen ditugu Mendaron, baina azokara ez bada, herrira joan ere ez gara egiten, udaletxera edo ospitalera joan beharrik ez badaukagu behintzat. Atera kontuak. Ez da ba berezia izango guretzat Kontzezio azoka? 7 urteko umea daukagu etxean eta hor dabil gauak kontatzen amamarekin azokara saltzera joateko.

◆ Saltzen egon beharko duzue zuek, baina izaten al duzue bestela egunaz gozatzeko aukerarik?

Bai. Bi edo hiru joaten gara azokara eta txandaka bada ere ibiltzen gara txorizoa jan, feria ikusi, hizketan egin... Gozatu egiten dugu egun horretan guk.

Vanessa Mateo ARTISAUA

Vanessa Mateo elgoibartarra da sortzez, baina Mendaron bizi da orain. Artisaua da afizioz eta Kontzezio azokan mahaia jarriko du aurten ere, bere sormen-lanak erakutsi eta saltzeko.

◆ Nondik datorkizu afizioa?

Beti sentitu dut sortzeko beharra. Gure ume sasoiaren nire ama eta auzoko beste emakume talde handi bat hantxe egoten ziren Sigman, kalean, punta egiten. Eta neu ere hantxe egoten nintzen, korroaren erdian jarrita. Ume lasaia izan naiz eta beti moldatu naiz ondo eskulanetan. Edozer egiten nuen. Baita lagunei ilea moztu ere, gaztetan lokala hartu genuenean. Haur Hezkuntza ikasi nuen gero, eta izugarri disfrutatzen nuen material ezberdina hartu eta sortzen. Pitxiak egiten alabak jaio zirenean hasi nintzela uste dut. Gantxoak, diademak... egiten nituen. Soineko bakoitzeko bat egiten nien alabei eta jendeari gustatu egin zitzaizkion nonbait, eske hasi zitzaizkidalako.

◆ Zertan moldatzen zara ondoen?

Pitxiak egiten ditut gehienbat, jendeak horixe eskatzen didalako gehien eta komeni zaidalako sortzen dudana horri aterabidea ematea, bestela traste pila pilatzen zaizkidalako etxean. Ez dut hala ere saltzeko lan egiten, hemendik bizitzea ezinezkoa delako eta ez nukeelako gainera afizioa obligazioa bihurtu nahi. Sortzen disfrutatzen dut. Lagunek esaten didate katalogo bat sortzeko edo Interneten salgai jartzeko gauzak, baina ez, ez nago horretarako prest; ezingo nieke eskari handiei erantzun, gainera, astirik ez daukadalako, eta ez nuke nahi nire burua estutzerik. Postua ere kontzezio azokan bakarrik jartzen dut.

◆ Zer egitea duzu gustuko? Zer saltzen da ondoen?

Pitxiak eta haurrentzako den edozer saltzen da ondo, eta disfrutatu, edozer sortzen disfrutatzen dut. Egia da, gertukoei asko gustatu arren, nire sormen-lanak ezer ez dudala perfektua egiten, eskuz egiteak hori duelako: sortzen duzun dena bakarra da, berezia. Horixe da gehien gustatzen zaidana, gainera. Dena moldatu dezakedala nire gustura eta bakar bihurtu. Etxea ere neuk moldatu dut oso-osoan nire gustura, eta arropa ere sekula ez dut janzen erosi bezala. Beti ematen diot ukituren bat. Fimo masarekin hasi nintzen lehendabizi lanean, labean sartzean gogortzen den plastilina moduko material horrekin. Orain, berriz, filtroa erabiltzen dut gehienbat, baina josteari ere eman diot. Arropa asko hondatu dut, baina hori da ikasteko modua ere. Koadrilan moztuak egiten hasi ginenean, amak beti esaten zidan josteko makina erosteko eta erosi dut bat –Sigma, jakina– eta orain kustomizazioari emanda nabil. Jendeak emandako arroparekin edo neronekin etxean daukatenarekin gauza berriak sortzen ditut edo apaingarriak jarri arropari: xingola etnikoak, flekoak...

◆ Elementu etnikoak asko erabil-

“Piladun jostailuek haurraren irudimena eta sortzeko gaitasuna mugatzen dute”



tzen dituzu. Zure lanek badute ezaugarri jakinik?

Forma borobilduak gustatzen zaizkit gehien eta margarita da nire irudi gustukoena. Ezkontzako nire soinekoari ere jarri nizkion.

◆ Sortu al duzu zerbait propio Kontzezio azokarako?

Bai. Mendaroko irudi zaharrekina brotxeak egin nituen iaz, eta konturatzerako saldu nituen denak. Aurten, ama askok tokilak lotzeko zerbait eskatzen zidaten eta azokarako Mendaroko armairidun brotxeak sortu ditut. Jendeak eskatzen duenera moldatzen naiz, gehienbat lehen esandakoagatik: sortzen dudana horri aterabidea emateko. Aurten, iaz bezala, ama ere egongo da nirekin postuan artilez egindako gauzak saltzen.

◆ Hiru alabaren ama zara, etxetik kanpora ere lan egiten duzu... Nondik ateratzen duzu astia?

Loari orduak kenduta. Gogoan daukat ume nintzela ohetik egongelako argia beti piztuta ikusten nuela. Orain konturatzen naiz gure amak noiz josten zuen horrenbeste. Neu ere halaxe ibiltzen naiz, goizaldera arte lanean. Etxean egon zalea naiz, eta libre daukadan momentuak honi eskaintzen dizkiot. Ez naiz gai telebistari begira egoteko, esku artean ezer ez baldin badaukat.

◆ Sormena galtzen doan zerbait ei da.

Ez da behar beste lantzen. Dena eginda ematen diegu umeei ere... Bada-kizu zerk daukan honen errua? Piladun jostailuek. Sekula ez erosi piladun jostailurik, haurraren irudimena eta sortzeko gaitasuna mugatzen dutelako..



'Jo ta ito', bi neraberen ametsa



Nerabeak dira, baina ume-umetatik izan dute musikarako zaletasuna. Musika taldea sortzeko ilusioa ere aspaldikoa zuten, eta gauzatu dute: Jo ta ito izeneko taldea sortu dute, eta punk rock doinuei emanda dabilta. Gaztelekuan eman zuten aurreneko kontzertua, Arimen gauean, eta bihar, Gaztelekutik Gaztetxerako saltoa emango dute. 16:30ean emango dute euren bigarren jende aurrenekoa eta ezin dute ilusioa ezkutatu. Asier Olabe eta Amets Fernandez dira, 13 eta 14 urte dituzte hurrenez hurren, eta entsegutan ari direla harrapatu ditugu, Ametsen gurasoen garajejan. (Argazkia, musika eskolako da).

◆ Gorosabeldarrak ere halaxe hasi ziren, Amets: garaje edo lokal batean.

Badakigu, bai. Asierrek eta biok beti izan dugu taldea sortzeko gogoia eta Institutuan hasi ginenean instrumentuak jotzen dituzten lagun batzuei ere komentatu genien, baina ez zitzaigun inor animatu. Baina guri berdin zitzaigun eta pentsatu genuen biok bakarrik izanda ere, aurrera egingo genuela.

Orain, beste lagun bat animatu zaigu. Bateria jotzen du berak eta beste itxura bat hartu du honek. Oso ondo konpontzen gara hirurok.

◆ Zer nolako musika egiten duzue, Asier? Zeri kantatzen diozue?

Rocka egiten dugu, punk rocka. Su ta Gar, EH Sukarra, Kortatu, Cicatriz... taldeen musika gustatzen zaigu eta saiatzen gara tipo hortan jotzen. Doinuak eta letrak geuk sortzen ditugu, etorri ahala. Telefonoarekin grabatzen ditugu inprobisatutako kantak eta gero entzun eta behar diren aldaketak egiten dizkiegu. Zortzi kantu sortu ditugu dagoeneko. Kezkatzen gaituzten gaien buruzkoak dira letrak. Badakugu Euskal Herriari buruzko bat, LOMCeri buruzko beste bat, sistemaren eta politikari ustelei buruzkoak, eta baita gure taldearen sorrerari buruzko bat ere.

"Doinuak eta letrak geuk sortzen ditugu, etorri ahala"

◆ Berandutxu jaiotze zarete?

Hori esaten digute. Beste iraultza bat behar dugu orain.

◆ Nola moldatzen zarete entseguetarako, Amets?

Aita ere ibili izan zen gitarra jotzen talde baten eta berari eskatu nion gitarra elektrikoa, ordura arte gitarra akustikoarekin jardun ginelako, baina ez zelako guk egin nahi genuerako egokia. Gitarrari sokak aldatu eta amplifikagailua ere erabiltzeko esan zidan eta hemen hasi ginen entsegatzen, garajejan, libre geneukan egunetan. Orain, baina, Soniari [alkatea] eta Joni [musika eskolako arduranari] entseguetarako lokal bat eskatu diegu eta musika eskolako gela bat utziko digute, momentuz asteazkenetan,

◆ Kontzertu bat eman duzue. Zer esan dizue ingurukoek, Asier?

Ondo egon zen. Batzuek esaten digute musika ez dakigula ezer eta ahotsik ere ez dugula kanturako, baina guri berdin zaigu, ez daukagu lotsarik. Beste batzuk harrিতa gelditu ziren. Bihar dute gu berriz ikusteko aukera. 14:30ean Gaztelekukoentzako bazkaria egongo da Gaztetxean, eta gero, 16:30ean, gure kontzertua. Etorri dila nahi duen jende guztia, hori nahi dugu guk eta. Pixkat urduri bagaude gure estreinekoa izango delako, baina oso ilusionatuta ere bagaude.

Unai Etxeberria elgoibartarrak irabazi du Alkortako Igoera



Unai Etxeberria elgoibartarra erraz gailendu zen Alkortako Igoeran. 21:32ko denboran osatu zuen Etxeberriak 4, 7 kilometroko bidea eta ia bi minutuko aldea kendu zion bigarren sailkatuari, Hasier Murua herrikideari (23:21). Julen Salaberriak egin zuen hirugarren, 23:43ko denborarekin. Emakume bakarrak parte hartu zuen proban, Igone Erizek, eta berak jantzi zuen txapela. 34 minutuan osatu zuen Erizek Herriko Enparantzatik Alkorta baserri atarirainoko bidea. Guztira hamabost lagunek osatu zuten proba, hamalau gizonak eta emakume batek, eta inork ez zuen lortu bere garaian lñigo Lazkano mendaroarrak ezarritako errekorra ontzerik (20:24). Argazkiak: www.barren.eus

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuaren doako eskaintza berezia abenduan

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak hainbat kirol jarduera ezagutzeko aukera eskainiko die herritarrei abenduan, ezer ordaindu beharrik gabe. Batetik, Mintxetan, Hipopresiboak (abenduarien 13an, 20:00etatik 20:30era) eta Spinning Masterclass (abenduarien 15ean, 18:30etik 20:00etara) saioak probatzeko aukera eskainiko dute. Bestetik, Olaizaga kiroldegian, gazteentzako zumba probatzeko aukera izango da. Abenduarien 19an izango da, 17:00etatik 18:00etara. Interesa dutenek izena eman behar dute Olaizaga kiroldegian edota Mintxetan, abenduaren 9a baino lehen.

Emaitzak

FUTBOLA

Haundi 0 – Hernani 1 (Oho. erreg.)

Elgoibar 0 – Mutriku 0 (1. erreg.)

Ordizia 4 – Elgoibar 2 (Oho. jub.)

Real Sociedad 7 – Elgoibar 1 (Oho. kad.)

Zumaia 0 – Elgoibar 3 (Inf. 1. maila)

Elgoibar 2 – Vasconia 4 (Infantil Txiki)

Lagun Onak 6 – Elgoibar 3 (Alebinak)

Elgoibar 5 – Arrasate A 0 (Alebinak)

ARETO FUTBOLA

Zierbena 7 – Concepto Egile 2 (Nazional B)

SASKIBALOIA

Alde Zaharra B 43 – Viento Sur 42 (Lurraldeko 2. maila)

Agenda

ARETO FUTBOLA (IMH Kiroldegian)

Domeka, 4

12:30 Concepto Egile – Ibarra (Nazional B)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 3

11:00 Elgoibar – Urki (Oho. kad.)

16:00 Elgoibar – Eibar (Oho. jub.)

Maila ona eman dute igerilari elgoibartarrek Azkoitian

Kirol Zehaztasun Ligako jardunaldia jokatu zuten Azkoitiko igerilekuan eta Elgoibarko Igeriketa Taldeko hainbat kidek hartu zuten parte. Bizkar estiloan Jon Martin eta Marina Zubiaurre nabarmendu ziren. Martinek 50:09ko denboran osatu zuen 50 metroko proba, eta Zubiaurrek 52:31ko denboran. Iker Calvok, berriz, bular estiloko 50 metroko proban parte hartu zuen eta 47:99ko denbora egin zuen.



'Elgoibarko Ahotsak' egitasmoa Elgoibarko ikastetxeetara zabaldu dute

Elgoibarko Udalak eta Badihardugu Elkarteak euskararen ahozko ondarea jasotzeko elkarlana abiatu zuten 2006an. Orduetik, lankidetzan jardun dute bi erakundeek *Elgoibarko Ahotsak* proiektuaren lanketan. Bildutako lana www.ahotsak.eus/elgoibar helbidean dago ikusgai. Bertan 86 hizlariren ahozko jarduna dago jasota, 1.506 pasarte, 130 audio eta bideoan 772 pasarte inguru. Elkarrizketa horiek guztiak *barren.eus* atarian ere ikusgai daude, Udalak xede horretarako ematen duen diru-laguntzari esker.

Oraingoan, baina, Udalak urrats bat gehiago eman nahi izan du eta jasotako material hori hezkuntzara bideratzeko ahalegina egin du herriko ikastetxeekin batera. Ahalegin horren emaitza da 2015-2016 ikasturtean eta 2016-2017an Herri Eskolako eta Ikastolako HHko ikasleekin egindako kantu-jolasen grabazioa eta Ikastolako DBHko ikasleek egindako ipuinen kontaketa. Guztira, 20 bideo jarri dira sarean ikusgai: zortzi kantu-jolas, bost jolas, lau abesti eta hiru ipuin. Bideoak ikusgai daude



www.ikasgelan.ahotsak.eus/elgoibar loturan, eta fitxak ere badaude jolaskantuen informazio osagarriarekin.

Gabonetako jaiotza lehiaketa abenduaren 11n egingo dute

Parrokiako Katekesiak jaiotzen lehiaketa antolatu du abenduaren 11rako. Jesusen jaiotza irudikatuko duen lana izan behar da, eta materiala norberak aukeratu dezake. Jaiotzak familian edota lagun artean ere egin daitezke. Izena emateko bi aukera daude: elgoibarkojaiotzak@gmail.com helbidera mezu bat bidalita (abenduaren 9a baino lehen) edo abenduaren 10ean parrokiako lokalera joanda, 11:30etik 13:30era. Lehiaketa bera hilaren 11n izango da, domekan. Lan guztiak 11:00etarako parrokiako arkupeetara eraman behar dira, eta meza ostean egingo dute sari banaketa. Irabazleek garaikurra jasoko dute, baina parte hartzen duten guztientzako egongo dira opariak.

Koska taldearen abesti guztiak disko batean berrargitaratu ditu Elkar diskoetxeak



Euskal rockaren aitzindari izan zen Koska taldeak bi disko kaleratu zituen 70. hamarkadan: Koska (IZ, 1976) eta Bihozkadak (Xoxoa, 1979). Orain arte biniloan bakarrik entzun zitezkeen, baina orain, Elkar diskoetxeak CD euskarrira pasatu ditu elgoibartarren abesti guztiak.

Koska taldea 1974. urtean sortu zuten Expresion Sonora taldetik zetozen Alfonso Guillok (baxua eta kantaria), eta Gabi Agirregomezkortak (lehen gitarra). Horiekin batera, Txerra Gurrutxagak (gitarra eta kantaria), Endika Iriondok (bateria) eta Mitxi Diegok (gitarra akustikoa) osatu zuten taldea. Expresión Sonorarekin The Beatles, The Animals, The Rolling Stones, The Kinks, eta beste hainbat talderen kantuek jotzen aritu baziren ere, Koska taldean sormen lanetan murgiltzeko eta euskaraz abesteko hautua egin zuten. Rock doinuak euskaraz abesten lehenengotarikoak izan ziren.

Su ta Gar taldeko Aitor Gorosabelekin solasaldia Mendaron, abenduaren 12an

Aitor Gorosabel Su ta Gar taldeko abeslariarekin solasaldia antolatu du Mendaroko Gaztelekuak, Udalaren laguntzarekin, abenduaren 12rako. Ainara Argoitia BARREN astekariko kazetariak dinamizatu du saioa, eta besteak beste, gizartea, euskara, gazteria eta musika kontuak izango dituzte hizpide. 19:00etan izango da saioa, Mendaroko Gaztelekuan.



'Jalgi hadi plazara' jaialdia, gaur 19:00etatik aurrera

Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, *Jalgi hadi plazara* jaialdia antolatu du Euskarak 365 Egun taldeak gaur arratsalderako. 53 elkarteko 500 bat ordezkari giza katea egingo dute Kalegoen plaza eta Maalako parkea lotuz, eta ondoren, *Plazera plazara* jaialdia egingo dute Maalako parkean. 19:00etan hasiko da ekitaldia, Kalegoen plazan.

Lana bilatzen laguntzeko bi heziketa programa jarri ditu martxan Elgoibarko Udalak

Herriko langabeei lana bilatzen laguntzeko bi hezkuntza programa jarri ditu martxan Elgoibarko Udalak. Ane Beitia, Elgoibarko alkateak adierazi du administrazioek horrelako ekimenak martxan jartzen jarraitzeko esfortzua egin behar dutela eta berretsi du Udalak. Elgoibarko langabetuen alde jarraituko duela lanean eta behar diren ekintzak bultzatuko dituela. *Elgoibarko emakumeen lan prestakuntzarako ibilbidea: Merkataritza laguntzailea* izeneko lehenengo programan gizarteratze arazoak dauzkaten 11 emakume parte hartzen ari dira. Formazioa jaso dute eta momentu honetan praktikak egiten ari dira. Bigarren programa, *Esperientzia proiektua*: >45 izenekoa, industria sektorean esperientzia duten eta 45 urte baino nagusiagoak diren langabetuei zuzenduta dago. Ikastaro hau abenduan hasiko da, eta 12 eta 15 plaza artean eskainiko dira. Izena emateko epea gaur bukatuko da. Interesatuak ondorengo telefonora deitu dezakete: 943 748 275.

Euskarazko ipuin lehiaketa antolatu dute Mendaron

Mendaroko Udalak euskarazko ipuinen lehiaketa antolatu du, LH5etik DBH 4ra arteko gazteentzako. Lehiakide bakoitzak ipuin bakarra aurkeztu ahal izango du, euskaraz eta berak nahi duen gaiari buruzkoa. Interesatuak abenduaren 19rako aurkeztu beharko dituzte lanak Mendaroko Udaleko Kultura Sailean. Sari banaketa abenduaren 24an egingo dute, 18:00etan.

Oin Alaiko partaideek 60+ egitasmoko kideak izan dituzte bidelagun

Mugikortasun iraunkorreko astearen barruan, 60+ egitasmoko kideekin batera joan ziren Oin Alaiko partaideak ikastetxeetara. Bi taldeek helburu berbera dute: jarduera fisikoa sustatzea, txikitatik ohitura jasagarriak hartuz. Bi taldetan banatuta, Kalegoen plazatik Elgoibar Ikastolara eta Herri Eskolara arteko bidea egin zuten elkarrekin.



Haizea emakume taldeak Mufomi museora egin du bisita

Haizea emakume taldeak antolatuta, Mufomi harri eta fosilen museoa bisitatu zuten hainbat herritarrek. Hango arduradunen azalpenak jaso zituzten, eta eskerrak eman dizkiete guztia hain ondo azaltzeagatik. Era berean, Udala txalotu dute horrelako museo bat mantentzen laguntzeagatik.



LANA.....
Eskaerak

Matematikako klase partikularrak ematen dizkiet DBH, Batxilergo edota unibertsitateko ikasleei. Matematikan lizentziatua. ☎ 667 625 233

DBH eta Batxilergoko hizkuntza ikasgaietarako klase partikularrak ematen dira: euskara, gaztelera, inglesa eta latina. ☎ 692 277 044

Nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo sukaldari laguntzaile lanetarako prest nago. ☎ 612 216 458

Nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo sukaldari laguntzaile lanetarako prest nago. ☎ 602 193 095

Garbiketa lanak egiteko prest: elkarrekin, portalak, etxebizitzak, ... ☎ 603 237 932

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Arratsaldez, orduka. Esperientzia handia. ☎ 654 304 337

Gauzez, ospitalean, gaixoak zaintzeko prest. ☎ 688 659 575

Umeak edo adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 653 569 293

Adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 634 896 845

Garbiketa lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko prest nago, astegunetan. Gauzez ere bai. ☎ 629 817 299

Garbiketa lanak egiteko, adinekoak zaintzeko edota sukalde laguntzaile gisa aritzeko prest nago. ☎ 632 879 419

Geriatría laguntzailea naiz. Adinekoak zaintzeko nituzke. Prestutasun osoa. ☎ 646 931 162

Umeak edo pertsona nagusiak zaindu, garbiketa lanak egin edota sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko prest nago. ☎ 616 457 254

Umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 680 808 125

Adinekoak zaintzeko edo sukalde laguntzaile bezala lan egiteko prest nago. ☎ 677 259 560

Adinekoak eta gaixoak zaintzeko prest nago. Asteburuetan. ☎ 617 571 210

Etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko prest nago. 7:00etatik 11:00etara. ☎ 631 182 450

Eskaintzak
Zerbitzaria behar da. Curriculumua Sua tabernan utzi.

ETXEBIZITZAK.....
Alokairua
Etxea alokatzen dut Mendaron, erdigunean. Bi logela, igogailua, berogailu zentrala, oso argitsua, egongela-jangela oso handia. ☎ 689 781 069

Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ 688 723 121

GARAJEAK.....
Garaje itxia alokatzen dut Jausoron. ☎ 647 216 314

Garaje itxia alokatzen dut Urazandin. ☎ 943 531 131

Garajea hartuko nuke alokairuan Urazandin. ☎ 609 951 243

BESTELAKOAK.....
Leopardo panpin txikia galdu dut zinetik irtetean, grisa eta arrosa. ☎ 686 882 162

Graduatutako eguzkitako betaurrekoak galdu ditut, funda eta guzti. ☎ 661 692 246

Karakate mikologia elkarteko nire bazkide-tza partea traspasatuko nuke. ☎ 688 605 253

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€ . Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Etxebizitza bateko hustubidean hainbat konponketa egitea adostu genuen komunitateko batzarrean, eta horretarako, beste etxebizitza bateko terrazako lurra altxatzea. Konponketak egin ziren, baina ez genituen obra egin aurretik terrazan jarrita zeuden baldosen berdinak topatu, eta etxe-jabeak ez zuenez onartu ezberdinak jartzea, baldosa guztiak aldatzeko eskatu zion batzarrean presidenteari. Presidenteak uko egin zion beste batzar bat antolatzeari eta obra egin zuen enpresari bere zatia ordainduta amaitutzat eman zuen dena, terrazako lanak bukatu gabe utzita. Presidenteak badauka horretarako eskumenik?

Komunitatea derrigortuta dago konponketa lanak egitean sortutako kalte estetikoak konpontzera. Beraz, baldosa berdinak ez badaude, baldosa guztiak aldatzera derrigortuta dago, etxe-jabe horrek ez daukalako hori onartu beharrik. Nire iritziz, konponketa lanen barruan sartzen da sortutako kalte estetikoerantzutea. Komunitateak, beraz, baldosa guztiak aldatu behar ditu. Jabekideen batzarrak eskumen osoa dauka aurrekontuetan sartu gabeko ohiko konponketak nahiz aurrekusi gabekoak egitea onartzeko.

AHOLKUA: batzarrak onartutakoak egikaritzeko eskumena bakarrik dauka presidenteak. Ezin du beraz bere kabuz erabakirik hartu. Kasu honetan ere gainerako etxejabeek galdetu beharko zuten erabakia hartu aurretik. Beraz, ezin ditu konponketa horiek egin gabe utzi.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749






Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.




Zorionak, **Nahia!** 16 urte eta batek daki zenbat ilusio! Segi urteak eta ametsak etengabe betetzen. Aitxixa, amama, Maite eta tío.



Zorionak, **Aimar,** etzi 3 urte beteko dituzulako. Jarrai ezazu beti bezain alai!. Muxu bat familiakoen, eta bereziki Liberen partez.



Datorren igandean 3 urte beteko dituzu! Zorionak, **printzesa.** Muxu bat etxekoen partez.



Zorionak, **Malen,** zure bitagarren urtebetetzean. Muxu handi bat familiakoen partez.



Zorionak, **Eire!** Konturatu orduko bete dozu urtia, pitxin! Paaaaaa!



Hemen gure **hiru sorgintxoak!** Oihane, zure zortzigarren eta, Saioa, zure bosgarren urtebetetzeak ospatu ondoren, larunbat honetan Itsasoren txanda da. 4 urte potolo! Zorionak familia osoaren partez.



Zorionak, **Ane,** gaur 6 urte beteko dituzulako. Ondo pasa zure egunean eta patxo handi bat Maddi eta etxeko guztien partez.



Zorionak, **Hai-zea!** Asko maite zaitugu, gure neska jatorral! 1001 muxu. Larraitz, Laiene, Irantz eta Jabi.



Zorionak gure etxeko **katuxo-ari,** bere 5.urtebetetzean. Muxu bat, aitaren eta Nuria-ren partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.

Argazki bikoitza: 7€.

Hirukoitza: 9€.

Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.

Argazki bikoitza: 6€.

Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

Jon Aranao
Guillermo Torres

Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Asteleheneratik ostiralareraino: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Inopaindegi zerbitzua daukagu.
Deitu ordua hartzeko.

RPS 16312

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359 www.uzurioptika.com

VARILUX 40

Mugarik gabeko ikusmena momentuan

IRAULTZA BERRIA
LENTE PROGRESIBOETAN

A. Garate

Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua
angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia - 20870 Elgoibar

610 226 651

DANOBATGROUP

HARTU PARTE DANOBATGROUPen EUSKARAREN EGUNEKO LEHIAKETANI!

Sartu lehiaketako estekan, ezagutu euskara arloko gure ekimenak eta irabazi SMART WATCH bat!

"Parte hartzeke epea 2018ko abenduaren 31an, gaurko 12etan itxia da"

Euskara afleas erabiltzean

www.danobatgroup.com/euskara/lehia/lehiaketa.htm

DANOBATGROUP HOOR E. | DANOBAT HOOR E. | GORTI HOOR E. | GOMDI HOOR E. | IDIHO HOOR E. | LATZ HOOR E. | SORALICE HOOR E.

QUALITY OF WORK HONORAZON

2 BARIXAKUA

18:00 Ines Bengoa ipuin-kontalaria. Mendaroko Udal Liburutegian.

18:30 Kantu kalejira, Mendaron. Azpilgoetan hasita.

19:00 *Jalgi hadi plazara*. Giza katea egingo dute Kalegoen plazatik Maalara, eta segidan, *Plazera plazara* jaialdia, Maalako parkean.

21:30 Zine forum-a: 'Sobran las palabras'. Loredi Salegik dinamizatuko du. Haizeak antolatuta, kultur etxean.

3 ZAPATUA

Kontzezio azoka, Mendaron

9:30 Barazki eta ganadu azokaren hasiera.

11:00 VI. Sagardo lehiaketa.

12:00 Mendaroko Trikitixa dantza taldearen kalejira.

12:30 Izetako idiek gidatutako gurdian ibiltzeko aukera.

13:00 Pasai Donibaneko zanpantzarren kalejira.

Ondoren, sari banaketa.

16:00 Eskolarteko pilota txapelketa.

18:30 Mutil eta nesken arteko gizapropa desafioa, Herriko Enparantzan.

Ondoren, sahieski erreka dastatzeko aukera Ustekabe fanfarreak alaituta.

23:30 'Guri 5' erromeria taldea (Gazte-xean Gazte Asanbladak antolatuta)

11:00 Parrokiara bisita gidatua, euskaraz. San Bartolome parrokiaren 300. urteurrenaren barruan.

4 DOMEKA

9:30 Intxortara mendi irteera. Morkaikok antolatuta, Herri Eskolako eta Ikastolako gurasoekin. Mintxetan elkartuko dira.

13:00 Angel Bazterretxea abadeari omenaldia, Mendaron. Herriko Enparantzan.

10 ZAPATUA

11:00 Parrokiara bisita gidatua, gaztelaniaz. San Bartolome parrokiaren 300. urteurrenaren barruan.

11 DOMEKA

11:00 Jaiotzen lehiaketa. San Bartolome parrokiaren.

16:30 Antzerkia: 'Dir dirin di, Mari Domingi'. Zirtaka antzerki taldeak taularatuko du, Herriko Antzokian.

12 ASTELEHENA

19:00 Su ta Gar taldeko Aitor Gorosabelek solasaldia, Mendaroko Gaztelekuan.

16:30 Antzerkia: 'Dir dirin di, Mari Domingi'. Zirtaka antzerki taldeak taularatuko du, Herriko Antzokian.

14 EGUAZTENA

12:30 Nazioarteko Xake Txapelketaren aurkezpena. Udaletxeko pleno aretoan.

19:30 2017ko egutegiaren aurkezpena eta sari banaketa. Kultur Etxeko sotoan.

15 EGUENA

20:00 *Bi mendeurren esanguratsu: Kalego San Bartolome Parrokia (1716-2016) / Errebaleko San Frantzisko Monastegia (1516-1926) liburuaren aurkezpena*. Pello Arrieta eta Javier Elortza historiagileek aurkeztuko dute liburua, Musika Eskolako auditorioan.

16 BARIXAKUA

18:00 Gurasoentzako formakuntza: *Jolasean eta kirolean gure seme-alabekin*. Unai Arrietak eskainiko du. Antolatzaileak: Kalamua, EIGK eta Ongizate Saila.

18:30 Alejandro Martinen erakusketa: *Argazkiak 3Dn*. Kultur Etxean, hilaren 31ra arte.

20:00 Musika Eskolaren Gabonetako kontzertua. San Bartolome parrokiaren.

20:30 Antzerkia: *Horacios y curiacios*. Alopargo teatroak taularatuko du, Herriko Antzokian.

ZEINTZUK DIRA DEBITUZKO ETA KREDITUZKO TXARTELEN ARTEKO DIFERENTZIAK?

Debituzko txartelarekin ordainketak egitean, une horretan bertan kentzen da eragiketaren zenbatekoa kontu korrontetik. Kutzazainetik dirua ateratzerakoan ere, une berean kentzen da kontutik eragiketaren zenbatekoa. Azkenik, esan, kasu gehienetan txartel hauek doakoak direla.

Kredituzko txartelekin, aldiz, hilean zehar egiten diren ordainketa guztiak hurrengo hileko lehen egunetako egun jakin batean kargatzen dira. Hilean zehar kutxazainetik ateratako dirua ere aurreko eragiketekin batera hurrengo hileko egun berean kargatzen da. Normalean txartel hauek komisio bat dute.

Bukatzeko aipatu, kredituzko txartelak medikuntza asistentziarako aseguru bat eskaintzen dutela, doan, txartelaren jabea izateagatik. Horrela, atzerrira joanez gero eta ospitalera edo medikuren batera joateko beharra izanez gero, txartelaren jabea izateagatik bakarrik 3.000 edo 6.000 eurotarainoko kostuak estaltzen ditu eta beraz askotan ez da beharrezkoa gure kabuz aseguru bat kontratatzea.

Atal honetarako galderarik proposatu nahi izanez gero idatzi helbide elektronikoa honetara: galderak@bankoia.es

 Jarri ezazu zure publizitatea **BARREN** astekarian edo www.barren.eus webgunean

☎ 943 744 112

Kalebarren plaza, 2
20870 ELGOIBAR

Zinea (Herriko antzokian)

'Igelak'

2 barixakua 21:30
3 zapatua, 19:00 / 22:15
(VOS)
4 domeka 19:00
5 astelehena 21:30



'No culpes al karma de lo que te pasa por gilipollas'

6 martitzena 19:00
8 eguena 19:00




'Que Dios nos perdone'

9 barixakua 21:30
10 zapatua, 19:00 / 22:15
(VOS)
11 domeka 19:00
12 astelehena 21:30



'Verano en Brooklyn' (Ongarri)

15 eguena 21:30



Botika ordutegiak

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Guardiak

09:00 - 22:00

- 2 Barixakua GARITAONANDIA
- 3 Zapatua ETXEBERRIA
- 4 Domeka ETXEBERRIA
- 5 Astelehena FERNANDEZ
- 6 Martitzena FERNANDEZ
- 7 Eguaztena ORUESAGASTI
- 8 Eguena YUDEGO
- 9 Barixakua IBAÑEZ
- 10 Zapatua GARITAONANDIA
- 11 Domeka GARITAONANDIA
- 12 Astelehena ETXEBERRIA
- 13 Martitzena FERNANDEZ
- 14 Eguaztena YUDEGO
- 15 Eguena ORUESAGASTI
- 16 Barixakua BARRENETXEA

22:00 - 00:00

Astelehenetik domekara - ETXEBERRIA (Elgoibar)
Santa Ana, 1 - Tel.: 943 740 140

00:00 - 09:00

IRAUNDEGI (Eibar) - Fermin Calbeton, 19
Tel.: 943 201 110

- * Fernandez: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel.: 943 756 142
- * Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel.: 943 751 638
- * Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel.: 943 751 384

I. URTEURRENA

Daniel Legorburu
Gabilondo



2015eko abenduaren 11n hil zen, 87 urte zituela.

Zure emazteak, seme-erreinak, bilobak eta gainerako ahaideek gogoan zaitugu.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, abenduak 11, eguerdiko 11:30ean Bartolome deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenei aldez aurretik eskerrak.



Manu Sanchez



Unai Villena



Kanpoan hotz latza egiten zuela oheratu zinen atzo, herrian elurra ganoraz bota zuen azken alditik igarotako denboraz hausnarrean. Azken elurtearen data zehatza gogoratzen saiatu zinen, gogo biziz saiatu ere, hain gogotsu ezen, konturatu zinenerako, haurtzaroko oroitzapenak elur-maluten antzera erortzen baitzitzaizkizun gogora, ezin zenuelarik ekaitza gelditu. Ordu batzuk beranduago, oroitzapenez ase, loak hartu eta zuriz egin zenuen amets, ahituta.

Energia gutxika berreskuratzen joan zara egunsentia iristearrekin batera, izozmendi batean harrapaturiko dinosauroa izan, eta lurmentze tanta bakoitzak beste indar aletxo bat gehituko balizu bezala. Eguzkiak itzaletan harrapaturiko narrastiari nola,

argi-printza bakoitzak odol-ponpaketa indartsuago bat emanez bezala joan zara irteten emeki-emeki gainezkatzen zintuen nagikeriatik, pixkanaka askatzen harrapaturik zinduzkan lozorrotik, ohetik jaiki eta pertsiana biltzeko nahikoa indar metatu arte. Begiak erdi itxita, ikuskizun elurtu itsugarri baten esperoan egin diozu tira sokari, irrikaz.

Kanpora begiratzean, ordea, ez duzu etxe aurreko zelaian inolako elur-manturik ikusi; urrunean, Karakate puntan, arrasto galkor bakan batzuk besterik ez. Espero zenuen argitasunak ez dizu begietara erasan, baina hotz lehorra, azala zeharkatuz, hezurretaraino sartu zaizu di-da, eta berehala itzuli behar izan zara oheko tapakien artera, zeure pentsamendu txurien berotasunean babesten zintuen lozorrorra. Gaur, zeuk ere nahi zenuke elurrezko izan, izara arteko epeletan urtu eta kanpokoari, nahi zenukeen modukoa izatetik hain urrun dagoen horri guztiari, aurre egin behar ez izateko.

“Begiak erdi itxita, ikuskizun elurtu itsugarri baten esperoan egin diozu tira sokari, irrikaz”



ORAIN EKONOMIA

gipuzkoa.eus/ekonomia

Ekonomia **Suspertzeko** Plana

Gure lurraldeko **ekonomia, enplegua eta ongizatea** indartzeko.

200M€
2015 > 2019

Industria

Lehen Sektorea

Gizarteratzea

Kultura eta Turismoa

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputazioa Foru de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

barrena 11, EIBAR

garajesGarcía.com

KUPOI HONEKIN

**Negurako 8
segurtasun
puntuen
azterketa **doan!****



www.garajesgarcia.com
g.garcia@garajesgarcia.com

Errotailea: **943 820 697**

Lotegia: **943 202 214**

943 127 271

15.300€



VW TOURAN 1.6 TDI ADVANCE 165

Motora: 1.6 cm3 TDI Diesel
Kilometroak: 58.000
Egoera: erabilia

12.500€



BERLINGO MULTISPACE 1.6 HDI TONIC 75

Motora: 1.6 cm3 HDI Diesel
Kilometroak: 60.000
Egoera: erabilia

15.300€



OPEL INSIGNIA ST 2.0 CDTI SPORT 164

Motora: 2.0cm3 CDTI Diesel
Kilometroak: 120.000
Egoera: erabilia

15.500 €



VW GOLF 1.4 TDI CR BM BUSINESS

Motora: 1.6 cm3 TDI Diesel
Kilometroak: 90.000
Egoera: erabilia

14.500€



FORD GRAND C-MAX 2.0 TDCI TITANIUM

Motora: 2.0 cm3 TDCI Diesel
Kilometroak: 80.000
Egoera: erabilia

11.500 €



CITROEN DS3 1.6 VTI SPECIAL EDITION

Motora: 1.6 cm3 VTI Gasolina
Kilometroak: 115.000
Egoera: erabilia

Lagunduko al diguzu

ELGOIBARKO IZARRAREN **TONBOLA** OSATZEN?

Elgoibarko Izarraren aldeko
TONBOLA

Abenduak 24,
11:00etatik 14:00etara,
Kalegoen plazan

1.500 erregalu
baino gehiago...

Aurreko hiru urteetan TONBOLAK izan duen estimazioak bultzatuta, aurten ere abenduaren 24an Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu Kalegoen plazan. Ehunka erregalu banatzea da gure desioa, baina horretarako zure laguntza behar dugu.

Animatuko zara tonbolarako erregalua ematera?

Animatzen bazara, esan ahal duzun azkarren tonbolarako erregalua emateko prest zaudela.

Harremanetarako:

barren@elgoibarkoizarra.eus

943 744 112



ELGOIBARKO IZARRA
BARREREN FUNDATZIOA

BERTSO-SAIOA ELGOIBARREN

HERRIKO ANTZOKIAN
Abenduak 28, asteazkena
22:00etan

Maialen Lujanbio
Andoni Egaña
Ohiana Iguaran
Amets Arzallus
Unai Iturriaga

Gai-jartzailea: Uxue Alberdi



Sarrereren aurre-salmenta: abenduaren 12tik 23ra
Prezioa: 11€ (10€ ELgoibarko Izarrako bazkideek)
Elgoibarko Izarran (09:00-14:00 / 16:00 – 18:30)

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



elgoibar
biZi-biZiXal

